

ATZO ETAGAUER
TXOMIN GARMENDIA

LARRETXEA TXAPELDUN

Egia esan banun lengo igandez Azpeitira joateko asmoa, baña eziña gertatu zitzaidan beste leku batean eginkizunak neuzkalako. Telebistari esker, Donato Larretxea eta Joxemari Olasagastiren arteko aizkoi-joko penagarria geiena ikusi nuen ordea.

Gaur-egun jarri liteken aizkoi- apusturik ederenaren aurtean ote geunden zirudindin aurrez, eta ala izango zan giro ura izan ez balitz. Jakina, besteak-beste lengo igandez eguzkiak indar zun eta orretatik etorri zan okerra. Aspaldi ikasi gendun, olakoetan Azpeitiko zezen-plaza berora zala, eta lengo igandez...?

Amabina enbor edeteki jarriak zauden; bi 45 ontzako, lau kanaanerdiko, lau 60ko eta bi oinbiko. Baziteken, gozo-gozo oiatakoak ez izatea ere; kontratak kontu edeteki gogortu zitran, geroxeago esan go dedanez.

Abiada ikusgarrian asi zitran biak, i beatz eta ni banauk alkarrri esanez bezela; erdilanak arte berdintsu joan zitran, baña ala etzegola jarraitzerik edozeinek pentsa zezakean. Ikusleak ere gozatu baino penatu geiago egin gihala esan bear; okerren bat gertatuko ote zan bildurrez.

Olasagasti, bederatzigarren enborrean ari zala exeri egin zan zutik egon ezinlik eta igeldorrratentz egin zutiko zan apustua. Larretxeak artuko zun poz ederra ori ikusi zunean, bestela, bera ere larri bai zan. Andik aurrera kontratorik gabe jardun zan naparra eta 35,15-ean lanak bukatu zitun. Joan zan urtean ere berak jantzi zun Urrezko Aizkoraren txapela eta aurtengoarekin badu bigarrena. Ondo merezitako saria eta zorionak Igeldorrrari, berriz, al dan azkarren sasotzea opa dioen. Jende gutxi zan Azpeitiko zezen-plazan, nere usteak bestelakoak zitran arren; izan ere, tibatola beste konturrik bai al dabilkigu?

1933ko eriotza. Lengo igandez Azpeitiko ikusiz, pentamontu atuek bururatu zitzaizki-

dan; orretako giro sargori batean, aizkolariari galerazi egin bear hitzalekela plazaratzea; aizkolari edo lan gogorreko edozein kitolarieri. Gizonaren biziak munduko urte guztiak baino geiago balio du gero!

Eta baditugu eskarmentuak Euskalerriari. 1933ko agostuaren 6an, Donezteben, Agiñeta gipuzkoarra eta Napparoko Urrozko Inazio Saldias jokatu zitran. Eguarrian jokatzeko baldintzetan zan aizkoi-apustu ori, baña bero ikaragarria suertatu zanez, ogeita amairu gradu izalean Errapael Agurrek bere liburuan esaten denez, gipuzkoarrek jokoa lliuntzera atzeratzea nai omen zun baña naparra ezezkanoan eta ala jokatu zitran. Napparak jokoa irabazi zun, baña baita eriotza ere; apustua bukatuta berreala eman bai zun azken arrnasa (G.B.). Ez da Doneztebekoa bakarrik, antzekoak geiago gertatu izandu dira. Nere iritzia eman det.

Agian, apustu ura ikusitakoak aurritu litezke oraindik; Azpeitikoak ikusteko zoria izan bezuten, oroituko zitzaizen Doneztebeko ura.

Basarri saria. Zarautzik artu dedan albisteak dionez, Emerezigarren Basarri Bertsopaper Saria, 900 euro eta txapela izango da eta bigarrena, 600 euro eta oroiagarria.

Bertsopaper bakoitzak, gutxienez, zortzi bertso izan bear ditu. Parraideak, nai aiña bertso-paper biatdu lezazke. Gata, librea izango da eta lanak bertsiak eta inun argitaratu gabek izan beariko dute.

Lanak aurkezteko epea, uztaillaren 21ean amaituko da, eta larrik: Zarautzo Udala, Euskara Zerbitzua, Zigortia 13-2. 20.800 Zarautz.

Gauzak zeatzago edo berri geiago jakin nai dunak asko du teleponoko zenbaki ontara deitzea: 943 130960.

Gaur bertsoingintza indarrean dautkagu zori onez, eta ziarituan go partaide asko izango dira-

la Zarautzerako. Suerte on partaritzen duten guztieri.

Pestak gaillurrean. Sanjuanak azkenetan ditugu eta Sanpedroak atarian; gaillurrean dira pestak eta errotuetiak; udara bete-berera sartu giniñalarik agoztua igaro artean beintzat izango degu aukera. Lengoe-tatik gaurkoetara egin diran aldaketak ere ez dira danak txarretarako izan. Batez ere etxeko andreak inoiz baño lan geiago egin bear izaten zuten erriko pestak etortzen ziranean. Zortzi bat egun aurretik, basarri-zokoak txukuntzen edo zuritzen esiko zitran. pestak bezperan, berriz, egazti-lumaketak eta abar. Izango zuten lanik asko. Mandio zabala konbidatuz beteiko zan bazkaltzeko eta gose-egariak ondo kenduko zitzaizkiden. Pestabazkari alek gaurkoen aldean aundiak tien zitran: oillo-salda asteko, gero garbanuzua txorizo eta urdatz osatua, ondoren oilloa menestran eta jarraitzen oilloko erreva edo aragia. Postretarako arroz-eneka jakinlekoa izango zan eta orretatik aurrerakoa ez dago esan bearrik.

Gaur, pestetako otordu geienak erri-nailian egiten ditugu eta etxeokondrak beste lasatasun batean bizitzan dira. Gaur, asarrek eta gorrotoak indar artu dutela esango nuke; adibidez, datorren astelaren degu San Marzial, eta Irunean ikkan-billa ziurtatuta dago alardea dala eta ez dala. Pranzasari gerra bat irabazi zituelako eta orren oronenez egiten da noski alarde ori eta orain geroik alkarrekin ezin konponduz. Beste lekutan ere izango da zerbaiz, baña euskaldunak orretarako aproposak gera.

Rikardo Arregi sariak. Larunbat ontan banatuko dira, Andoaingo udalaxecko batzar aretoan, amboosarren Rikardo Arregi kazetaritza sariak. Erriko alkatea dan; José Antonio Perez Gabarain eta Eusko Jaurlaritzako Patxi Goenaga izango dira ektaidiko zuzendari.

«Testu-liburuek Euskal Herri folkloriko bat agertzen dute», dio Begoña Bilbaok

► 507 lagun ariko dira Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoetan

FELIX IBARGUTXI. DV. DONOSTIA

«Hamaita eta hamabi urteko neska-mutikoei erabili izan dituzten testu-liburuek Euskal Herriaren ikuspegi turistikoa eta folklorikoa dute oro har». Hauxe da Begoña Bilbaok datorren astelehenean IV. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoetara hasiera emateko emango duen hitzaldiko ondorioetako bat.

Aurkezpen-hitzaldi hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Txomu Arretoa izango da, arratsaldetako betan, eta hurrengo egunean, asteartean, emango zaie hasiera lagarren Topaketa Pedagogikoetara. Hezkuntza munduko 500 lagun bilduko dira topaketa horietan, hirugunetan zehar: Donostiatik Pedagogia Fakultatean.

Begoña Bilbaorekin batera, Gurutze Ezkurudia eta Karmele Perez Urrezak aurkezuko dituzte euskal testu-liburugintzari buruz egin dituzten ikerketetako ondorioak. Hirurak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak dira eta historikan zehar hamaita hamabi urteko ikasleentzako egin diren euskarzako testu-liburu guztiez gain, gaztelaniazko eta frantsesezko batzuk ere izan dituzte kontuan.

Kezka hau izan zuten irakasleok beren ikerketara lanerako abiapuntu: «Zergatik helitzen dira ikasleak unibertsitateara Euskal Herriari buruzko horren ezagutza eskasarekin?». Begoña Bilbaok adierazi duenez, «euskal nor-tasunari eta identitateari datu gutxi» eskaintzen dituzte testu-liburuek, «eta edukiak gero eta urbanagoak dira».

Liburu horietan agertzen diren pertsonalei dagokienez, «gehienak gizonezkoak dira, eta emakumeak agertzen direnenak gizonekoetara agertzen dira bati bat. Esterotipo handiena gizoneko heldua da, eta zaharrei eta umeei ez zaie lekurik egiten».

Uztailaren 1, 2 eta 3an burutuko dira Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak, Euskal Herriko Unibertsitateko Pedagogia Fakultatearenkin batera antolatutak. 507 lagunek eman dute izena eta *Hik Hasi* aldizkaria pozik da hezkuntza munduko jendeak emandako erantzunarekin.

Hasieran 36 ikastarotako eskaintza egin zen, baina guztietan ez da behar adinako falderik osatu eta azkenenean 27 ikastarotako dira.



Berrikuntzen artean, alpagariak dira ikastaro espeziifikoetara bideratutako txokoak. Orain arte *Literatur txokoa* izeneko ikastarora bideratu den bezala, hemendik aurrera beste bi eskaintuko dira: *Artearen txokoa* eta *Historiaren txokoa*. Arteari buruzkoan Oteizak haurren hezkuntzaz plazaratutako gogoetat izango dira abiapuntu. Eta historiaz ingurukoan historiaturu landuko da era praktikoa, garaia hartako trenak eginz eta erabiliz.

Topaketetako saio teorikoena, berriz, Jerome Bruner-en ikerketari buruzko izango da. «Hobetu al datieke adimena?» du izenburu ikastarok.

Pedagogia Fakultateko Felix Basutxok adierazi duenez, «heztazialen esperientziak trukatze oso ballagarriak dira» topaketa hauek, eta «noizean behin profisionalei komeni zaie gelfitxiki bait egitea eta teoriara bueltatzea». Topaketa hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaran laguntza dute, eta bertako Lorea Leanizbarriak esan duenez «euskararen normalizaziorako ezinbestekoak dira» hauek bezalako bilera.

Esta temporada se va a llevar lo más fresco.

Empieza el calor y el lineal de frío va a contar con nuevas recetas que se van a llevar mucho. Sabores frescos y 100% naturales que convertirán el lineal de frío en el punto más caliente de su establecimiento.



Los Menús de Gran Cocina Kaiku

Gran Cocina KAIKU